


## **BANAKETA KANALAK**

Tech4all-ek hainbat harreman kanal izango ditu bezeroentzako eskuragarri, hauek zerbitzu ezin hobe bat jasotzea ahalbidetuko duena. Kanal hauen artean webgune bat, denda fisiko bat eta bezeroen arretarako mugikor zenbaki bat 12 orduetan erabilgarri aurkitu ditzakegu. Kanalen bitartez, Tech4all merkatu-segmentu desberdinetara iritsiko da, enpresaren balio proposamena helarazten.

- Lehen aipatu bezala Tech4all enpresak, denda fisiko bat edukiko du (lekua zehazteko). Horrela kontaktu zuzena edukiko du bezeroekin eta eskaintzen duen zerbitzua jaso ahal izango dute bezeroek forma presentzialean. Tech4all-eko produktuak erosi nahi dituzten bezeroak zuzenki joan ahal izango dira dendara eta horrela katalogoan nahi duten produktua aukeratu ahal izango dute bai eta fisikoki probatu ere. Denda fisikoan egingo dira adin nagusientzako tailerrak, horrela nagusiek teknologia nola erabili ikasi ahal izango dute. Tailer hauetan funtsezko pausuak ikasiko dute.



- Tech4all-en hurrengo harreman kanala, webgune bat da. Webgune hau mundu guztiarentzat egongo da zabalik interneten, eta Tech4all-en produktak ikusi edo erosi nahi dituen edozein pertsonak izango du sarbidea internet bidez. Horrela Tech4all-ek ziurtatuta dauka bere produktuak mundu guztiarentzat ikusgai egotea. Harreman kanal honekin, enpresak gazteen arreta ere lortu dezake, gazte askok, gailu elektronikoeekin denbora asko

pasatzen dutelako egunean zehar eta momentu batean, enpresaren webgune digitalarekin topo egingo zuten.

- Aurreko bi harreman kanalez gain, enpresak 12 orduetan erabilgarri izango du mugikor zenbaki bat. Mugikor zenbaki hau astelenehetik barikura egongo da erabilgarri. Bezeroek mugikor zenbaki honetara deitu ahal izango dute edonolako matxura edota zalantzarengatik berri emateko enpresari. Edonolako matxuraren bat izan ezkeru Tech4all-en produktuekin, enpresa zuzenean jarriko da bezeroarekin kontaktuan, eta ahalik eta azkarren saiatuko da matxuraren erantzun egokia emateko lantza argitzen.

